**PRENTSA OHARRA**

# BATZAR NAGUSIETAKO LEHENDAKARIAK BIZKAIKO GIZARTE LANEKO ELKARGO OFIZIALA HARTU DAU GERNIKAN

- **Bizkaiko 1.100 elkargokide ordezkatzen dituan elkargo ofizial honetako ordezkaritza batek Gernikako Batzarretxea bisitau dau.**

(Gernikan, 2021eko maiatzaren 5ean). Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak Bizkaiko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordearen eta beharginen ordezkariak hartu ditu gaur Gernikako Batzarretxean. Ordezkaritza horren buru Elixabete Domínguez Gabas presidentea izan da. Bere ia 40 urteetan, Bizkaiko 1.100 elkargokide ordezkatzen dituan alkarte honek Bizkaiko Batzarren egoitzara bisita ofiziala egiten dauen lehen aldia da.

Bizkaiko ordezkaritzak interes berezia agertu dau, Europako parlamenturik zaharrenetakotzat hartzen dan Batzar Nagusien egoitzea ezagutzeko. Batzar Nagusietako lehendakariak lagunduta, guztiz emakumez osatuta egon dan Elkargoaren ordezkaritza zabalak Batzarretako egoitzako gune nagusiak bisitau ditu.

Batzarretako lehendakariak ohore handiz hartu gura izan dau Elkargoa, *“Orain ia lau hamarkadatik egiten ari dan lana eta esfortzua balioesteko”*, lan sozialak *“gure gizartearentzat funtsezko zeregina”* beteten dauelako. Otaduik behargin horreek *“egoera zaurgarrienean dagozan”* personakaz egunero egiten daben lana goraipatu dau, eta baita Giza Eskubideak eta Justizia Sozialaren printzipioak betearazoteko daukien konpromisoa be, *“personen aldaketea eta garapen soziala bilatzen daben gizarteko eragile aktibo moduan”.*

Batzarretako lehendakariak azpimarratu dauenez, lan sozialaren lanbidea *“beti”* egon da emakumeei lotuta, baina *“apurka-apurka gizonezko beharginei ateak edegiten ari da eta pozten naz horregaitik. Izan be, gizarte-esparrua ez da beti emakumeakaz identifikau behar. Aldaketa soziala guztion kontua da, baita zuen lanbidean be”*, esan deutse.

Bizkaiko Batzarren atarian txistulari batek hartu dau ordezkaritzea, eta segizioa Batzarretxearen kanpoaldetik gidatu dau. Zugatz Zaharrean eta Gernikako Arbolan gelditu dira, eta dantzari bikote batek “aurreskua” dantzatu deutse. Horren ostean, segizioa Osoko Bilkuren Aretoan eta Beiratearen Aretoan sartu da. Eta ohikoa dan moduan, Gernikako Batzarretako Ohorezko Liburuan

sinatuta eta haretxaren aurrean familiako argazkia aterata amaitu da harrera ekitaldia.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**NOTA DE PRENSA**

# LA PRESIDENTA DE LAS JUNTAS GENERALES RECIBE EN GERNIKA AL COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA

- **Una delegación de este Colegio oficial que representa a 1.100 colegiadas y colegiados en Bizkaia, visita la Casa de Juntas de Gernika.**

(Gernika, a 5 de mayo de 2021). La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, ha recibido hoy en la Casa de Juntas de Gernika a parte de la Junta de Gobierno y personal del Colegio Oficial de Trabajo Social de Bizkaia, una delegación que ha estado encabezada por su presidenta Elixabete Domínguez Gabas. Es la primera vez que esta agrupación, que representa a 1.100 colegiadas y colegiados en Bizkaia, realiza una visita oficial a la sede parlamentaria vizcaína en sus casi 40 años de existencia.

La delegación vizcaína se ha mostrado especialmente interesada en conocer la sede de la Cámara foral, considerado uno de los parlamentos más antiguos de Europa. Acompañadas de la presidenta de las Juntas, la amplia representación del Colegio, compuesta en su totalidad por mujeres, ha recorrido las principales estancias de la sede parlamentaria foral.

La presidencia de la Cámara ha querido recibir al Colegio con todos los honores para "*poner en valor el trabajo y el esfuerzo que realiza desde hace casi cuatro décadas en el ámbito social en el territorio*", porque el trabajo social cumple, según ella, "*un cometido fundamental para nuestra sociedad*". Otadui ha destacado el trabajo que realizan diariamente estas trabajadoras con las personas "*más vulnerables*" y también por su compromiso de hacer cumplir los Derechos Humanos y los principios de la Justicia Social, "*como agentes sociales activos que buscan el cambio y el desarrollo social de las personas*."

La presidenta de la Cámara ha destacado también que la profesión de trabajo social ha estado unida "*siempre*" a las mujeres, pero "*poco a poco está abriendo la puerta a trabajadores masculinos y me alegro por ello. Porque el ámbito social no debe identificarse siempre con las mujeres. El cambio social es cosa de todos, incluso en vuestra profesión*" , les ha dicho.

La delegación ha sido recibida a las puertas del Parlamento de Bizkaia al sonido de un txistulari que ha guiado a la comitiva por el exterior de la Casa de Juntas, con paradas en el Árbol Viejo y en el Árbol de Gernika, donde una pareja de dantzaris les ha bailado un "aurresku". A continuación, la comitiva ha

accedido al Salón de Plenos y a la Sala de la Vidriera. Y como es habitual, la recepción ha terminado con una firma en el Libro de Honor de la Casa de Juntas de Gernika y con una foto de familia delante del roble.